

# Kontraesanetan



**JOXERRA AIZPURUA**  
INDUSTRIA INGENIARIA

**L**an egiten dudan enpresari maiz egokitu zaio Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia den SPRIn diru-laguntzak eskatzea, bai beretzat, baita bezeroentzat ere.

Eskaerak beti edo ia beti euskaraz aurkeztu izan ditugunez, gauza bitxi asko gertatu izan zaigu. Adibidez, duela hamar edo hamabost urte, SPRIn teknikairenen batek adierazi zigun gure proiektuak itzulpen zerbitzura bidaltzen zituztela, eta horrek atzerapenak sortu zitzaizkela ebazpenen garaian. Urteek aurrera egin ahala, SPRItik eskertu izan digute proiektuak euskaraz aurkeztu izana, baina baita aitortu ere, oso espezie arraro batekoak izaten segitzen dugula, hain zuzen horregatik.

Gero eta gehiago dira SPRIn euskara ulertzen duten teknikariak, eta beraz, gero eta normalagoa beharko luke proiektuak euskaraz aurkeztea, baina benetan espezie arraroa gara, nonbait.

Izan ere, aurten hainbat proiektutan laguntzaile gisa egokitu zaigu azaltzea eta hara non, nire harridurarako, proiektu

Gero eta gehiago dira SPRIn euskara ulertzen duten teknikariak, eta beraz, gero eta normalagoa beharko luke proiektuak euskaraz aurkeztea, baina benetan espezie arraroa gara

tu liderrak enpresa euskaldunak izanik ere proiektuak gaztelaniaz idatzi diren. Enpresa liderrei adierazi izan diegu, proiektuak euskara ez den beste hizkuntzetan idaztean, ez garela ongi ari euskararen defentsan, baina horren aitorpena jaso ondoren hurrengorako utzi izan da euskararena.

Begien bistakoa da industriaren alorrean euskara ulertzen eta ezagutzen duten pertsonak gero eta gehiago direla, baina gauza "serioei" buruz hitz egin behar dugunean gaztelaniara, frantsesera edo ingelesera jotzen dugu berehala.

Ildo horretan, lorpen gisa hartzen dut hainbat bilera teknikotan bakoitza nahi duen hizkuntzan aritzea, hau da, nirea euskaraz esaten dut eta beste batek gaztelaniaz erantzun, eta hari, hirugarren batek, berriro ere euskaraz, adibidez.

Egoera hori gaztelaniaz idatzi diren proiektuen segimendu bileretan poztarren bizi izan dudala aitortzen badut ere, euskararen normalizaziorako bidean urrats asko emateke daude oraindik. Laguntza deialdietan oso normala da puntutxo batzuk ematea ingurugiroaren errespetua, genero ikuspegia edo euskararen inguruko enpresa politika azaltzen dituzten idazkiengatik, baina horiek justifikatzeko idazten ditugun lerroak erdaraz baldin badaude, zertan ari gara?

Azken 20 urteotan enpresetan lagundutako euskara planak milaka onuradun izan ditu. Ezin uka horiek beharrezkoak direnik, baina orain norberaren euskararen kontzientzia astindu beharra dago. Ea aurten burutu behar den Euskaraldiak ohitura aldaketa eragiten laguntzen digun. ●

